

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EDIZIORAKO ETA POSTPRODUKZIORAKO BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK	Iraupena	80
		Berariazkoa	
Kodea	UF0811		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Edizioaren eta postprodukzioaren plangintza	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Edizioko eta postprodukzioko lanerako planaren diseinua	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0947_3 IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKTU BATEN EDIZIO- ETA POSTPRODUKZIO-PROZESUAREN PLANGINTZA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikus-entzunezkoen edizioko teoria eta teknika nagusiak bereiztea, zehazten dituzten elementu bereizleak identifikatuz, ikus-entzunezko kontakizunen eraikuntzan erabiltzeko, generoen eta estiloen arabera.

E1.1 Ikus-entzunezko hizkuntzaren elementu narratiboak, espresiboak eta deskriptiboak ezagutzea eta deskribatzea:

- Planoak, eta haien tipologia.
- Hartualdia.
- Eszena.
- Sekuentzia.
- Eremua eta eremutik kanpo.
- Jokaespazioaren zatiketa.
- Kamera-mugimenduak.
- Barne- eta kanpo-erritmoa eta -mugimendua.

E1.2 Ikus-entzunezko sekuentzia bat ikustetik abiatuta:

- Planoak, mugimenduak, efektu bereziak, trantsizioak eta irudikapen-kodeak zer motatakoak diren identifikatzea, ikus-entzunezko dokumentuen azterketatik abiatuta.
- Konposizioaren oinarriko arauak erabiltzea sekuentzia osatzen duten planoen azterketan.
- Irudien elipsi- eta trantsizio-motak identifikatzea, baita haien funtzioak ere.
- Jarraitutasun kontzeptua baloratzea, sekuentziari aplikatuta.
- Soinu-bandak ikus-entzunezkoaren edizioari egiten dizkion ekarpenak zehaztea.

E1.3 Dokumentu teknikoak identifikatzea eta definitzea; esaterako, gidioa, eskalera, dekoratuen planoa eta lanerako plana. Haien egitura eta erabilitako kodeak eta sinbologia interpretatzea.

E1.4 Ikus-entzunezko produkzioen dokumentu teknikoetatik (esaterako, gidoi teknikoak, eskaleta edo dekoratuaren planoa) hauek ondorioztatzea:

- Obra- edo programa-mota, eta generoa.
- Hizkera bisuala.
- Erabilitako ikus-entzunezko prozesuak eta teknikak.
- Gauzatzeko baldintzak eta kalitate-baldintzak, izan daitezkeen zailtasunak kontuan izanik, irizpide tekniko eta narratiboetara erreparatuz. Edizio-prozesua erraztuko duten beste irtenbide batzuk aurkeztea eta justifikatzea.

E1.5 Edizioaren oinarri narratiboak azaltzea, denboraren, espazioaren eta ideia- edo edukiaren tratamenduaren arabera.

E1.6 Edizioaren teoria klasikoak alderatzea, funtsezko elementuak eta kontzeptuak identifikatuz.

E1.7 Ikus-entzunezko edizioaren barne- eta kanpo-erritmoaren eta -mugimenduaren kontzeptua baloratzea.

A2: Ikus-entzunezko programen edizio- eta postprodukzio-prozesuak zerrendatzea, prozesuaren faseetan esku hartzen duten enpresak, sailak eta ekipo profesionalak identifikatuz, deskribatuz eta ezagutuz.

E2.1 Ikus-entzunezko dokumentu bat produzitzeko jatorrizko sistemak eta formatuak identifikatzea.

E2.2 Ikus-entzunezko produkzio baten edizio- eta postprodukzio-prozesua aurkeztea.

E2.3 Ikus-entzunezko produktu bat editatzeko erabiltzen diren metodologia eta ekipoak deskribatzea.

E2.4 Proiektu batean erabiltzen diren efektu bereziak zehaztea, eta asmo narratiboari egiten dioten ekarpena baloratzea.

E2.5 Ikus-entzunezko obra bateko elementu grafikoak eta idazkunak deskribatzea, eta haiek egiteko erabiltzen diren ekipoak identifikatzea.

EI2.6 Edizio- eta postprodukzio-prozesuetan esku hartzen duen profesional bakoitzaren ekarpena zehaztea.

A3: Ikus-entzunezko produktuen edizioan eta/edo postprodukzioan erabiltzen diren materialen eta ekipo teknikoaren ezaugarriak eta prestazioak aztertzea, ekipoekin esperimendatuz.

EI3.1 Grabatzeko sistemen oinarri teknologikoak deskribatzea.

EI3.2 Irudiaren bereizmenaren, kalitatearen eta kolorimetriaren oinarri teorikoak azaltzea.

EI3.3 Edizio-prozesuen ezaugarriak definitzea eta alderatzea:

- Edizio lineala eta ez-lineala.
- Lineako edizioa eta lineaz kanpoko edizioa.
- Edizio-zerrenden funtzioa («EDL»).
- Efektu berezien konposizioa.
- Soinuaren postprodukzioa.

EI3.4 Erabilitako ekipo eta tresna analogiko eta digitalen funtzionamendua eta prestazioak zehaztea:

- Bideoak editatzea.
- Bideoko irudiak nahastean.
- Bideoko efektuak sortzean (analogikoa eta digitala).
- Karaktereak sortzean.
- Grafismoak egitean.
- Bideoaren seinalea neurtzean, kontrolatzean, doitzean eta zuzentzean.
- Audioaren edizioan eta postprodukzioan.

EI3.5 Zinema-filmak editatzeko erabilitako ekipo eta materialen funtzionamendua eta prestazioak zehaztea.

EI3.6 Errealizazio-kontrolako ekipoak deskribatzea (esaterako, monitorea, magnetoskopia, idazkun-makinak edo nahasketa-mahaiak), eta prestazioekin lotzea.

EI3.7 Zinemako filma prozesatzeko eta tratatzeko erabiltzen diren prozesuak eta ekipoak zehaztea.

EI3.8 Irudi elektronikoen edizio-ekipoen, postprodukzio-ekipoen eta tratamendu-ekipoen prestazioak aztertzea, bideo-programen postprodukzioan eta irudien sorrera sintetikoan aplikatutako oinarriko tratamendu informatikoekin lotuz.

A4: Ikus-entzunezko programak produzitzeko erabiltzen diren zine-, bideo- eta audio-formatuen eta -sistemen ezaugarriak baloratzea, proiektuaren eskaeretara egokitzen direla bermatzeko.

EI4.1 Bideo-formatuak sailkatzea, erabilitako teknologia bereiziz eta pisten funtzioak eta ezaugarriak deskribatuz.

EI4.2 Zinema-filmaren formatuen ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzea eta erlazionatzea.

EI4.3 Grabazioan eta postprodukzioan bideoak konprimitzeko erabiltzen diren sistemak deskribatzea.

EI4.4 Erabiltzen diren emulsiotak (koloretakoa, zuri-beltzekoa) haien ezaugarriekin eta prestazioekin lotzea.

EI4.5 Formatu bakoitza euskarri magnetiko edo informatikoan grabatzearen ezaugarriak zerrendatzea.

EI4.6 Bideo-formatuen seinalea askotan kopiatzeko edo degradatzeko aukerak deskribatzea.

EI4.7 Zinemako errealizazioan eta errealizazio bideografikoan soinua hartzeko, grabatzeko eta erreproduzitzeko erabiltzen diren sistemak eta formatuak identifikatzea eta deskribatzea.

EI4.8 Ikus-entzunezko produktu batean erabilitako formatuen bateragarritasuna ebaluatzea.

Edukiak

1. Zine-, bideo- eta telebista-industriak

- Sektoreko enpresak.
 - Motak.
 - Funtzioak.
 - Antolakuntza-egiturak.
 - Produkzio-sistemak eta -estrategiak.
- Produkzio-prozesuaren faseak:
 - Profesionalak eta funtzioak.
 - Sailen arteko erlazioa.
 - Enpresen arteko erlazioa.
 - Postprodukzio-ekipoaren eragin-trukea gainerako profesionalekin.
- Proiektu-motak:
 - Ikus-entzunezko generoak.
 - Egitura.
 - Edizio-eskaerak.
 - Dokumentu elkartuak.

2. Ikus-entzunezko hizkuntza eta narratiba

- Irudikapen bisualeko elementuak, eta haien artikulazioa.
- Konposizio-arauak.
- Planoaren balio espresiboa.
 - Motak.

- Ikuspegia konposizioan.
- Planoen arteko trantsizioa.
- Kamera-mugimendua.
- Irudiaren espazio-kontzeptua.
 - Eremua.
 - Eremutik kanpo.
 - Plano baten barne- eta kanpo-mugimendua.
 - Ikus- eta soinu-kodeak zinema-kontakizunean. Soinuren balio espresiboa eta narratiboa.
- Kontakizunaren zatiketa: Hartualdia. Eszena. Sekuentzia. Blokea.
- Denbora eta espazioa ikus-entzunezko narrazioan:
 - Kontakizunaren denbora-egitura.
 - Espazioa/denbora artikulazioa (elipsiak, trantsizioak, scopea, atzera begirakoa...).
- Ikus-entzunezko jarraitutasunaren elementuak eta printzipioak.
 - Mugimendua.
 - Ekintza.
 - Argiztapena.
 - Arropak.
 - Attrezzoak.
- Ikus-entzunezko mugimendua eta erritmoa.
 - Barne-erritmoa.
 - Kanpo-erritmoa.

3. Ikus-entzunezko edizioa

- Edizioaren teoria nagusiak.
 - Análisi konparatiboa.
 - Bilakaera.
- Postproduktzio-prozesuak:
 - Edizio lineala eta ez-lineala.
 - Lineako edizioa eta lineaz kanpoko edizioa.
 - Edizio-zerrenden funtzioa (EDL).
- Efektu berezien konposizioa.
 - Elementu grafikoak eta idazkunak.
 - Soinu-bandaren ekarpenak.
- Edizioaren oinarri narrazioak
 - Produktzio-modua.
 - Denbora.
 - Espazioa.
 - Ideia edo edukia.

4. Zinemaren, bideoaren eta telebistaren oinarri teknologikoak

- Irudiaren oinarri teorikoak. Bereizmena. Kalitatea.
- Kolorimetria.
 - Zinema-kamera:
 - Objektiboak.
- Filma: irudiaren hartualdia.
- Errebelatzea.
- Efektu bereziak laborategian.
- Proiektagailua.
- Telebista-kamera.
- Telebista-estudioak.
- Telebistako emanaldia. Seinaleak. Formatuak.
- Telebista digitala.
 - Hedapena: lurrekoa, satellite bidezkoa eta kable bidezkoa.
 - Formatuak: bereizmen arrunta eta bereizmen handia.
- Bideo-seinaleen grabazioa.

5. Soinuaren oinarri teknologikoak

- Soinuaren ezaugarriak: tonua, tinbrea eta intentsitatea. Parametro fisikoak.
- Soinu analogikoa eta digitala:
 - Soinu analogikoaren eta digitalaren arteko aldeak.
 - Laginketa-maiztasuna eta bereizmena.
- Hartualdia.

- Mikrofono-motak:
- Ezaugarriak eta aplikazioak.
- Grabazioa: Grabazio-formatuak eta -euskarriak.
- Postprodukzioa.
- Zinemarako, bideorako eta telebistarako soinua.
 - Soinu-bandak egitea.
 - Nazioarteko soinua.
 - Soinua jartzea.
 - Soinu-efektuak.
 - Girotze musikala.

6. Postprodukzioan erabiltzen diren ekipo eta materialak

- Erabiltzen diren ekipoen funtzionamendua eta prestazioak.
 - Bideo-editoreak.
 - Bideo-irudien nahasgailuak.
 - Bideo-efektuen sorgailuak
 - Idazkun-makinak
 - Grafismoa egiteko ekipoak.
 - Bideo-seinalearen neurketa, kontrola, doikuntza eta zuzenketa.
 - Audioaren edizioa eta postprodukzioa.
 - Zinema-filmaren prozesaketa eta tratamendua.
 - Monitoreak.
 - Magnetoskopioak eta disko gogorrak.
- Materialak eta ekipoak aukeratzeko irizpideak.

7. Formatuak eta sistemak

- Bideo-formatuak. Motak. Erabilitako teknologia. Funtzioak. Pisten ezaugarriak.
- Bideoa konprimitzeko sistemak.
- Formatu bakoitzaren grabazio-ezaugarriak.
- Bideo-formatuen kopia ugari.
- Soinua hartzeko, erregistratzeko eta erreproduzitzeko sistemak eta formatuak.
- Formatuen bateragarritasuna.
- Zinemako formatuak.
- Emultsio-motak:
 - Koloretako emultsioen ezaugarriak eta prestazioak.
 - Zuri-beltzeko emultsioen ezaugarriak eta prestazioak.

8. Dokumentu teknikoaren azterketa

- Ekipoen beharren zehaztapena, proiektuaren eta aurrekontuaren arabera.
- Egituren, kodeen eta sinbologiaren interpretazioa:
 - Gidoia.
 - Edizio-eskaleta.
 - Lanerako plana.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa